



## Erronka:

**Nola ezagutu ditzazkegu hobeto Bizkaibuseko garraio publikoaren erabilerari buruzko datuak?**

## Azpi-erronkak:

- Nola eskura dezakegu ibilgailuan dauden erabiltzaileei buruzko informazioa denbora errealean?
- Nola segmentatu dezakegu informazio hori, gero ustiatzeko?
- Nola ikus dezakegu informazio hori erabakiak hartzeko euskarri gisa?

## Testuingurua:

Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Saileko **Garraioen Zuzendaritza Bizkaibusekudeaketaz arduratzen da, Bizkaiko hirien arteko autobusen garraio-zerbitzua**. Zerbitzu hori funtsezko zutabea da Lurraldeko errepide bidezko garraio publikoaren sisteman, eta **Bizkaiko konektibitatea indartzeko** BFaren strategiaren elementu nagusietako bat da.

Garraioen Zuzendaritzaren **helburu estrategikoetako bat Lurraldean garraio publikoaren erabilera sustatzea da**. Testuinguru horretan, 2024-2027 aldirako Garraio Publikoaren Erabilera Sustatzeko Planak haren erabilera sustatzea du helburu, **kalitatezko zerbitzuak eskainiz**. Ildo horretan, inkestak gogobetetzea ezagutzeko bide eraginkor bat dira, eta erabiltzaileen %86ak positiboki baloratzen du zerbitzua gaur egun, batez beste 7,9ko notarekin.

**Zerbitzuaren kalitatea hobetzeko ekimenak abian jartzen jarraitzeko**, GovTech Programaren esparruan **erronka hau planteatzen da, Bizkaibusek zerbitzuak erabiltzen dituzten erabiltzaileen kopurua denbora errealean ezagutzea helburu duena**.

## Helburuak:

Garraioen Zuzendaritzak bere **autobus-linea eta ibilgailuetan garraio-zerbitzu bakoitza nola erabiltzen den jakin dezan**, honako puntu hauek ahalbidetuko dituzten konponbideak bilatzen dira:

- Bidaian zehar **zerbitzua erabiltzen ari diren pertsonen kopuruari buruzko informazioa lortzea, denbora errealean**
- **Informazio hori maila desberdinetan integratzea, segmentatzea eta ustiatzea**, eskatzen den gutxieneko informazioa ibilgailua eta erabiltzaile-kopurua direlarik
- **Informazioa ikustarazteko tresna bat izatea**, balioa emango duena eta **erabakiak hartzeko euskarri izango dena**

## Zer nahi dugu?

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Erronkarako balioa duen proposamen argi eta esanguratsua
- Merkatuan traxioa duen soluzio teknologikoa
- Egungo sistemekin eta prozesuan inplikaturako alderdi guztiekin integrazteko gai dena
- Adopzioarako eta inplementazioarako erraztasuna
- Datuak babesteko neurriak betetzeko bermea
- Irisgarritasuna eta sinpletasuna: arlo digitalaren gaineko ezagutza maila desberdina duten pertsonentzako soluzio egokia
- Soluzioaren eskalagarritasuna

## Prozesua eta data garrantzitsuak:

Proposamenaren erantzuna jasotzeko **azken eguna 2024/05/24** da.

Hautaketa-prozesuak honako urrats hauek ditu:

- Bost enpresa hautatzea, kontuan hartuta planteatutako soluzioa noraino egokitzen zaion eronkari
- Hautatutako bost enprekin elkarrizketak egitea, haien jarduera eta balio diferentziala gertuagotik ezagutzeko
- Hiru enpresa finalista hautatzea
- Hiru finalisten pilotatze-proposamena aurkeztea
- Enpresa eta soluzio irabazlea hautatzea

Soluzio irabazlea ezartzeko **pilotatzea 2024ko ekaina eta urria bitartean egingo da, 4 hilabeteko iraupenarekin:**





Erronkari edo prozesuari buruzko zalantzarik izanez gero, idatzi e-maila helbide honara  
[info@bizkaiaok.eus](mailto:info@bizkaiaok.eus)

## Zer lortuko duzu?

Pilotatzea ordaintzea (gehienez 15.000 euro).